

Ikastetxeak:

ERREPORTAJEA:

EUSKARA
HEZKUNTZAN 2. or.
LAUDIO BIGARREN
HEZKUNTZA
IKASTETXEA 4. or.
LAUDIOKO LANBIDE
HEZIKETA UDAL
IKASTETXEA 6. or.
ZARAOBE
INSTITUTUA 8. or.
LAUDIO
IKASTOLA 10. or.

BATXILERGOA
LANBIDE HEZIKETA

GEHIGARRI BEREZIA

HEZKUNTZA AIARALDEAN
ESKUALDEKO ESKAINTZA HIZPIDE

Erreportajea

Euskara, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan gainditzeke dagoen ikasgaia

EUSTATen estatistikek hala diote: Haur Hezkuntzatik DBHra gazteleraz ikasten duen ikasle kopurua gutxiengoa da EAEn. Handik aurrera, baina, gauzak aldatu egiten dira: Batxilergoan ia %40a dira gazteleraz ikasten dutenak. Lanbide Heziketan are nabariagoa da: %70 pasatxok ikasten du gazteleraz. Baina Aiaraldean badago Batxilergoa eta Lanbide Heziketa euskaraz egiteko aukera.

ERREDAKZIOA I

Batxilergoan eta Lanbide Heziketan gutxitu egiten dira euskaraz ikasteko aukerak: DBHn %60ak baino gehiagok ikasten du euskaraz. Lanbide heziketan, aldiz, ehuneko hori %25era jaisten da.

Hala ere, eskualdean badago bai Batxilergoa bere osotasunean eta baita Lanbide Heziketako zenbait modulu euskaraz ikasteko aukera. Zaroabe Institutuak du eskaintzarik zabalena: moduluak euskaraz (D eredu) eta gazteleraz (A eredu) eskaintzen dituzte bertan; eta bi talde berezitu osatzeko behar beste jende ez bada, bien arteko talde misto bat osatzen dute. Iñaki Rodrigo Institutuko zuzendariaren esanetan, ikasleek esku dago euskarazko eskaintza handitzea. Zuzendariak azaldu duenez, askotan jende gutxi ematen du izena D ereduari eta ez dago taldea sortzerik.

Laudioko Institutua, bere aldetik, duela 32 urte hasi zen Batxilergoa euskaraz eskaintzen. Araban erdi-mailako hezkuntza publikoak aitzindariak izan ziren. Lanbide heziketan, aldiz, egoera oso bestelakoa bizi du institutuak A ereduari eman delako beti. Duela urte batzuetatik hona euskaraz egiteko aukera ematen da, baina orain arte ez da talderik sortu.

Batxilergoa euskalduntzen


1971an sortu zen Laudio Ikastola, eta orduz geroztik euskarazko hezkuntza izan du oinarri, ikastolako kideek azaldu dutenez. Baina Batxilergoa ez zuten 1990-1991 ikas-turtera arte eskaini.

Aintzinako Andra Mari ikastetxean, berriz, 1995an eskaini zuten Batxilergoa euskaraz lehenbizikoz. Baina ikastetxetik azaldu dute B ereduari proiektu Eleanitzaren lantzen dutela. Eredu horretan %50a da euskaraz eta gaztelerari ingelesa gehitzen zaio. Hor-taz gain, euskaraindartzeko ikastaroak eta udako euskarazko barne-tegiak eskaintzen dituzte. Laudioko Lanbide Heziketa Udala ikastetxean, aldiz, 12 urte daramatzate Batxilergoa euskaraz eskaintzen, eta aurtengo ikasleek %59ak hala egiten du. Lanbide Heziketan ez dago euskaraz hutsezko eskaintzarik, baina irakasleek gehiengoa euskaraz dela azpimarratu dute ikastetxetik. Praktikak eskaintzen dituzten enpresektore euskaldunak eskaini ahal izateko konpromisoa eskatu diete baita.




Lanbide heziketako ikasle gehienek gazteleraz egiten dituzte ikasketak. Irudia: aiaraldea.com

Ikasleak irakasteredu elebidunaren arabera (%). Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak. Euskal AE



(*) Euskaraz ikasgai moduan ikasten dute (A eredu) iturria EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren Estatistika

Hizkuntzek matrikulazioan izan duten bilakaera erakusten duen grafikoa. Irudia: EUSTAT



Aurtengo matrikulazioen ehunekoak hizkuntza-ereduak sailkatzen dituen grafikoa. Irudia: EUSTAT

Geroz eta helduago izan, geroz eta erdaldunagoa da hezkuntza

EUSTATen estatistiken bi grafiko ikusi daitezke ezkerrean. Lehenak unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzako datuak biltzen ditu (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak, Batxilergoa, Hezkuntza Berezia, Lanbide Heziketa eta Helduen Hezkuntza).

Bertan ikusi daiteke azken 20 urteetan nabarmen egin duela gora euskaraz ikasten duten ikasleek kopurua, Gazteleraz ikasten duten kopurua nabarmen jaitsi den bitartean.

Euskaraz eta gazteleraz ikasten duten ikasleek kopuruak, aldiz, ez du aldaketa nabarmenik izan: gutxiengoa izaten jarraitu du, %10-%20 bitartean.

Bigarren grafikoa aurtengo matrikulazioen datuak ikusi daitezke, ikasketen motaren eta hizkuntza-ereduen arabera. Batxilergoa eta Lanbide Heziketa dira gazteleraz matrikulatutako ikasle kopuru handienak dituztenak (A ereduari, alegia). %40 eta %75 dira, hurrenez hurren. Grafiko hori ikusita euskararen presentzia adinarekiko proportzionala dela esan daiteke: ikasleek, urteak aurrera egin ahala, gazteleraz ikastera igarotzen dira. Hala, geroz eta helduago izan, geroz eta hezkuntza erdaldunagoa jasotzen dute ikasleek.

_erreportajea

Euskara hezkuntzan, eskualdeko ikastetxeetako zuzendarien begietatik

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa eskaintzen dituzten Aiaraldeko ikastetxeen zuzendari guztiek bat egiten dute honako baieztapenean: ikasketak euskaraz egitea positiboa dela ikaslearen hezkuntzari eta jendarteratzeari begira. Euskararen presentzia, administrazioen arduraz, ikasleen aldetik dagoen eskaeraz... eta beste hainbat aspektuz hitz egin dute zuzendariek.

ERREDAKZIOA I



Iñaki Rodrigo

Zaraobe institutuko zuzendaria

“Ikasleen esku dago euskarazko eskaintza handitzea”

Ikasleen esku dago euskarazko eskaintza handitzea, eskaintza ez bada soilik euskaraz egiten. Eskaintza osoa soilik euskaraz egitearen aukera ikastetxeena da, baina ez dut uste (lanbide heziketak duen ezauzgarri eta “bezeroen” perfila ikusita behintzat) une honetan errealtate soziolinguistikoari erantzuten dionik.

Datu bat: guk goi mailako ziklo bat galduguen euskaraz ematen hasi eta hurrengo urtean; agian ez zen horregatik izan, agian zikloa ez zen erakargarria, baina hor daude mesfidantza eta beldurra. Idei nagusia hauxe izan daiteke: ematen du ikasleek ez dutela behar bezala menperatzen euskara, eta horren ondorioz aukera eman ezker nahiago izango dutela gaztelaniaz ikastea... Hau hitzez hitz sinisten badugue garausartuko beste urratsik ematera. Normalizazio linguistikoari sekulako ekarpena egin diezaiokegu irakaskuntza arlotik, bestela bidea mozten diogu euskararen garapen eta hedapenari.

Badago euskaraz ikasteko es-

“Badago euskaraz ikasteko eskaera, baina ez dago guztiz finkatua”.

kaera. Hala ere, ez dago guztiz finkatuta. Esaterako, guk urte batzuk daramagu eskaintza bikoitza egiten eta talde mistoak ateratzen; aldiz, aurten (bereziki ahalegina egin dugula D ereduaren alde) mekanizazio talderako ez ziren D ereduko matrikularik egin, zergatik? Nork daki.

Etabai, euskaraz ikastera anima-

tuko nituzke ikasleak. Euskara maite badute, euskarababestu nahibadute, edota euskaraz bizi nahibadute euren ikasketak euskaraz burutu eta profesional euskaldunak bihurtu, ekarpen izugarria litzateke euskararentzat.



Javier Aiz

Laudioko LHUI-ko zuzendaria

“Lanbide Heziketan euskalduntzea geldoa izaten ari den arren, etengabea da”

Azken urteotan euskararen presentzia haziz joan den arren derrigorrezkoak ez diren hezkuntza etapetan eta bereziki Lanbide Heziketan, unibertsitate kanpoko beste ikasketak batzuen batz bestekotik behera dago.

Egoera horren arrazoi ezberdinetan sartu gabe, hezkuntza zentroak eta bereziki gure ikastetxea egoera hori aldatu eta euskararen presentzia handitzea ekarpenak egiten ari gara Laudioko Udaltzen inplikazioarekin.

“Irakasleen euskalduntzean egindako lanak euskararen presentzia nabarmen handitu du”.

Euskararen presentzia txikiagoa den Lanbide Heziketan irakasleenghiengoa euskalduntzen egin den lanak giro geroz eta euskaldunagoa bizitzeko aukera eman digu.

Eskualdeko enpresen konpromisoa ere bilatu da, ikasle euskaldunek praktikak pertsona euskaldun baten tutoretzapean egin ditzaten.

Etorkizunari begira, 14-18 Hizkuntza Normalizazio Proiektuan Lanbide Heziketan euskararen presentzia are nabarmenagoa egiteko hainbat ekimen aurreikusten dira, agian geldoa izan arren etengabea

den erritmo batean hobetzeko.

Bukatzeko, ikasle eta irakasle euskaldunak euskaraz komunikatzea animatuko nituzke; gaur egun posiblea delako, datu estatistikoak, hezkuntza ereduak eta eskakizun legeetatik harago LHUIan euskara sustatzearen erantzukizuna bertako euskaldunen eskaera handitzean baitago.



Juankar Bermejo

Laudioko Ikastolako zuzendaria

“Dударik gabe animatuko nituzke ikasleak euskarazko ikasketak egitera”

Oro har, Euskal Herri osoa aintzat hartuz, hezkuntza administrazioei dagokie euskaraz ikasteko eskaintza handitzea. Tokian tokiko egoera aintza den arren, seme-alabak euskarazko hizkuntza ereduaren matrikulatzeko familiek aurkitzen dituzten oztopoak administrazioek jarritakoak direlako: ikas postu nahikorik ez da eskaintzen, euskalduntzen ez duten ereduak eusten diete, borondate politiko eza...

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden hizkuntza eredu eztabaida gaituta dago aspaldian eta gizaritearen nahiz euskal hezkuntzaren aldeko elkarten aldarrikapena argia da: administrazioak berma dezala 16 urte betetzen duten ikasleek eleanizdunak izatea, ez soilik elebidunak, euskarari lehentasuna emanaz.

“Oro har, Euskal Herri osoa aintzat hartuz, hezkuntza administrazioei dagokie euskaraz ikasteko eskaintza handitzea”.

Nork ez du nahi bere seme-alabak hizkuntza ezberdinetan kompetenteak izatea? Pedagogoei, hizkuntzalariek eta zientzialariek aspaldian egiaztatu dute txiki-txi-

kitatik hizkuntzak bereganatzeko umeen ahalmena. Euskal Herrian lana topatzeko, euskaradunekin komunikatzeko, kulturaz blaitzeko, gizaritean nork bere burua txertatu ahal izateko... euskara ezagutu, erabili eta baloratu baina eginkizun garrantzitsuagorik al dago, euskal hiritarra zein atzerritarra izanda?

Hori ziurtatzea ez al da administrazioaren egitekoa, hezkuntza eskubidea denontzat bermatuz, haurtzaindegietatik unibertsitate-rainoko hezkuntza eskaintza maila eta mota guztietan?

Dударik gabe animatuko nituzke ikasleak euskarazko ikasketak egitera... Denon eskubidea delako. Ikastetxeok betekizun itzela dugu horibideratzen, baina ez gara eragile bakarra... Euskal Herriaren historian hezkuntza propioaren garapenean ikastolek jokatu dugun eginkizuna aski ezaguna eta onartua da aitzindariak izan garelako. Etorkizunari begira gure ekarpena egiten jarraitu nahi dugu, euskal gizariteak aldarrikatzen duenarekin bat eta aurrera eginez.



Lucia Gastaka

Laudioko BHI-ko zuzendaria

“Aitzindariak izan ginen Araban; eta, gaur egun ere, tinko eusten diogu helburu horri”

Ikastetxe Publikoa garen heinean, hezkuntza antolaketa orokor baten barruan gaude. Zonalderako egoki ikusten dugun eskaintza Hezkuntza Sailari eskatzen zaio eta honek erabakitzen du. Batzuetan onartzen du eta besteetan ez.

“Batxilergoan eta DBHn dago euskarazko ikasketen eskaera nagusia”.

Gure aldetik, eskaerari egokitzeko saiatzen gara beti.

Batxilergoan eta DBHn dago euskarazko ikasketen eskaera nagusia, D eredu da nagusi. HLPP eta Lanbide Hezkuntza ordea, gaztelaniaz egitea eskatzen da.

Ikasleak euskaraz ikastera animatuko nituzke, dudarik gabe, bere garaian aitzindariak izan ginen Araban eta gaur egun ere, tinko eusten diogu helburu horri. Arlo akademikotik harago, bizitzako euskarri ezinbestekotzat jotzen dugu gure hizkuntza, lan arloan zein gizarite arloan, norbanakoaren garapen osorako tresna eta baliabide baliotsua delarik.



Javier Larrea

Aintzinako Andra Mari ikastetxe-ko zuzendaria

“Murgiltzea da euskaraz ondo ikasteko metodo bakarra”

Ikastetxearen Proiektu Linguistikoaren finkaturik dagoelarik esan daiteke ez dagoela inolako arazorik euskararen eta ingelesaren hedapenean, gainera ikastetxeen formazio planak eta berrikuntzak bide horretatik dabilta.

“Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin hobea: bi hizkuntza jakinda askoz errazago ikasten dira beste batzuk”

Euskararen eskaera egunetik egunera handitzen ari da. Murgiltzea da euskara eta euskaraz ikasteko metodo bakarra edo beste la esanda murgiltuz baino ezin da euskara eta euskaraz ikasi.

Dударik gabe animatuko nuke euskaraz ikastera. Hizkuntzen garrantzia gaur egun gero eta nabariagoa da. Horrela beldurrik gabe esan daiteke zenbat eta hizkuntza gehiago jakin hainbat eta hobea; bi hizkuntza jakinda askoz errazago ikasten dira beste batzuk.

Laudio BHI

Batxilergoa

Laudioko Institutua, mende erdia heziketaren bideetan barrena



Institutuko ikasleak kultur astea ospatzen. Argazkia: Laudio BHI

ERREDAKZIOA

Egun, Batxilergoa bukatutakoan nagusi da ikasleen artean unibertsitaterako aukera: hamarretik zortzik hautu hori egiten du. Horretarako, ikasleek hautapropa (Selektibitatea) gainditu behar duten arren, gehiengo handi batek (%95-etik gora) gainditzen du.

Hala ere, eta denborak ekartzen dituenaldaketak aldatuta, Batxilergoa prestatzerakoan arreta jartzzen zaie egungo gazteek dituzten bestelako beharrei. Izan ere, ikasleek %20k Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasketak hautatzen dituz-

te, unibertsitatera joatea hautatu beharrean.

Hori dela eta, berebiziko garrantzia du Batxilergoko ikasketak ibilbideen diseinuak. Modalitate bakoitzean propio diren sei ikasgai egin behar dira gutxienez, bi urtetan zehar. Horiek dira modalitate bakoitzeko enborra. Baina, horietaz gain, aniztasuna eta behar desberdinak asetzen saiatzen diren hautazko ikasgaiak daude: Laborategiko Teknikak, Atzerriko Hizkuntzan Ahozko Komunikazioa, Argazkigintza, Informazio eta Komunikazio

Teknologiak edo Psikologia. Hauen bidez behar desberdinak asetzera da helburua: kreatibitatea, ezagupen praktikoa edo diziplina ezberdinen arteko jarduerak, esaterako.

Ikasle askoren topagune

Laudioar guztion ezagun zaharra dugu Laudioko institutua. Gazte askorentzat ikasle garaiko bidean egindako urratsen lekukoa izan da herriaren erdigunean kokatzen den ikastetxe hau. Eta etorkizunean ere baliagarriak izango diren ikasketak eskaintzen ditu.

Batxilergoko eskaintza

IES LAUDIO BHI hiru modalitatean eskaintzen ditu Batxilergoko ikasketak: Zientzia eta Teknologia, Giza eta Gizarte Zientziak eta Arteak. Laudiokoa da Artearen modalitatea eskaintzen duen herri mailako institutu bakarra. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatuta, unibertsitaterako edo Goi Mailako Lanbide Heziketarako ateak zabalduko dizkie Batxilergoak ikasleei.

Ikasturte honetan 162 ikasle ari dira Batxilergoa egiten IES LAUDIO BHI sei ikasle taldetan banatuta: hiru lehen mailan eta beste horrenbeste bigarrean. Hauetatik 76k Zientzia eta Teknologia modalitatea egiten dute, 60k Giza eta Gizarte Zientziak eta 26k Arteak.

Batxilergoa egin duzu edo egiten ari zara. Zer nabarmenduko zenuke zure esperientziatik?



Iratxe Yarritu
Arte Batxilergoko ikasle ohia

Betidanik bokazioa sentitu nuelako matrikulatu nintzen eta espero baino ikasketak praktikoa goak izan ziren. Material anitzak lantzeko teknikak ikasi genituen (buztina, metala, alabrea...), unibertsitatean ere erabili behar izan ditudanak. Perspektibaz ikusita, prestakuntza zabala eta baliagarria izan da unibertsitatean aritzeko. Bolumena, ADI eta Argazkigintza bezalako ikasgaiak oso gustuko izan nituen.



Miren Gastaka
Giza eta Gizarte Zientziak batxilergoko ikasle ohia

Espero nuena baino aukera zabalagoa eskaini zidan Giza eta Gizarte Zientzien batxilergoko modalitate honek.

Oso esperientzia aberasgarria izan zen: norberaren burua ezagutzen eta etorkizuneko bidea aukeratzeko lagundu zidan.

Institutuan Comenius programan parte hartu nuen: ingelesez hitz egin eta bidaiatzeaz gain, errespetua eta elkarbizitza garrantzen ikasi nuen.



Asier G. / Ainhoa / Asier R.
Zientzia eta Teknologia batxilergoko ikasleak

Asier G. Aretatik DBH egitea etorri zen institutura: "Oso txikia nintzen eta institutua handia iruditu zitzaidan, arin pasa dira 6 urte hauek, penaz joango naiz baina hemen autonomoagoa bilakatu naiz ere".

Ainhoa eta Asier R. aldez, Batxilergoa egitea etorri ziren: "pozik gaude aldaketarekin, espezializazio eta erantzukizun maila handiagoak dira eta libreago sentitzen zara"

Estetika eta edergintza

Gorputzen zainketa eta edertasuna lantzeko lanbide heziketa ikasketak



IES LAUDIO BHI 28 ikasle aritzen dira Erdi Mailako "Estetika eta Edergintza" Zikloan.

Ziklo honetako ikasleek arlo praktikoa balioesten dute, ikastetxeko tailerretan lantzen dituzte ile apainketa, azazkalen dekorazioa, ile apainketarako osagarrien diseinu eta manufaktura, eta azalaren zainketa.

Bigarren mailan, ikasleek inguruko enpresetan praktikak egin behar dituzte, lortutako trebezia eta gaitasunak lan munduan praktikan ipintzeko.

Urte hauetan ziklo honek lan munduan txertatzeko aukera eman die hainbat ikasleri eta zenbait enpresa txikiren sorrera ahalbidetu du.

ERASMUS +

"Ondo egindako lanaren aitortza izan dira sariak"



Azken urteetan Europar Proiektuak izeneko egitasmoa egin da IES LAUDIO BHI, Carmelina Calavia eta Jose M^a Fernandez irakasleen ardurapean.

Momentu honetan zer nolako proiektua egiten ari zarete?

Proiektu berria prestatzen ari gara Erasmus Plus egitasmoaren barruan. Aurtengo eginbeharrak proiektua planifikatu eta eskatzea da.

Daukazuen eskarmentua handia da. Horrek erraztu egiten du lana?

Eskarmentua badugu, baina hau bezalako proiektu ba-

tek prestakuntza luzea behar du: zenbait herrialdeko ikastetxeen inplikazioa, gaiak adostea, bilerak eta ikasleen trukeak planifikatzea, finantziak kalkulatzea...

Nola baloratzen duzue orain arte egindako lana?

Oso pozik gaude. Egindako lan proiektuetatik azkena saritua izan da Euskal Herrian, Madrilan eta Europa mailan. Dena den, sariaren gainera, ikasleen parte hartzea, familien esker ona eta ikastetxeko mugaz haraindi beste kulturak ezagutzeko aukerak ematea asetzen gaitu gehien.

_Laudio BHI



IES LAUDIO BHI

BIGARREN HEZKUNTZA IKASTETXEA

BATXILERGO ESKAINTZA ZABALA **D eta A EREDUAN**



- ARTE BATXILERGOA
- ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

**AURRE
MARIKULA
ZABALIK**
Maiatzaren
5etik > 15era

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOA **D eta A EREDUAN**



- ERDI MAILAKO ZIKLOA
- PRAKTIKAK ENPRESETAN
- ESTETIKA ETA EDERGINTZA
- Ile-apainketarako laguntzailea (LHPP)

**AURRE
MARIKULA**
Maiatzak 27tik
Ekainak 6

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK
LANBIDEKO IKASTAROAK



Zumalakarregi 34
01400 Laudio-Llodio (Araba)
Tfnoa. 94 672 00 86 / Fax 94 672 26 19

Isasi bidea, 3
01400 Laudio-Llodio (Araba)
94 672 18 70 / fplaudio@euskalnet.net

Informazio + www.laudioinstitutua.net



Laudio LHUI

Praktikak enpresetan

Ikasleek aurten 54 enpresatan egingo dituzte praktikak



Hainbat alorretako lanbide heziketa eskaintzen da Udal-ikastetxean. Argazkia: Laudioko LHUI

ERREDAKZIOA

Ikasturte honetan zehar Lanbide Heziketa Udal Ikastetxeko 127 ikasle hartu dute parte eskualdeko enpresekin elkarlanean egiten diren praktika programetan.

Aurten 54 izan dira guztira Laudioko LHUI-ko ikasleak hartu dituzten enpresak. Enpresa horietako gehienak gertukoak dira: Basauritik Urduñaraino luzatzen diren herrietan kokatuak. Hala ere zenbait ikasle praktikak Zalla edo Etxebarriko enpresetan egin dituzte.

Beste eremu batzuetan bezala, krisiak praktika-sisteman eragina izan du: matrikulazio-kopurua gora doan bitartean ikasleentzako postu kopuruak gutxitzeko joera du; bai enpresa batzuk itxi dituztelako, bai jarduerak behera egin duenez ez dutelako ikaslerik hartu nahilarik emangabe izateko. Egoe-

ra hau konpondu ahal izan da enpresa indartsuenek postu gehiago eskaintzeko ahalegina egin dutelako eta 16 enpresa berrik ikasleak praktiketan hartzeko konpromisoa hartu dutelako.

Ikasturte honetan zehar lau izan dira Lanbide Heziketa Ikastetxeak eskaini dituen praktika programak: "Lantokiko Prestakuntza" da programa horietako bat. Titulua lortu ahal izateko ikasleek nahitaez enpresetan ikasi duten zikloarekin lotutako zereginak eginez igaro behar duten tartea da eta ikasketetako azken hiru hilabeteetan zehar egiten da.

Eskaini duten bigarren programa Erasmus izan da. Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoetako goi-mailako heziketa zikloko ikasle batek programa horretan har-

tu du parte, eta horri esker Alemaniako enpresa batean dago praktikak egiten.

Hirugarren programa Hezi-bi izeneko da. Bertan hiru ikasle klaseak enpresa batean egindako ordaindutako lanarekin uztartzen ari dira urtebetez. Programa hau 2012-2013 ikasturtean abiarazi zen eta Eusko Jurlaritzak Lantokiko Prestakuntzaren alternatiba bihurtu nahi du.

Azkenik, urte honetan "Lehen Aukera" beka jarri dira abian EAEn, titulua lortu berri duten ikasleentzat. Hiru hilabeteetan zehar enpresetan lan egiteko 1.500€-ko beka dira eta gazteriaren lan-munduratzeari hobetzeko asmoa du. Udal-ikastetxeko zortzi ikasle ohik hartu dute parte bertan, abendutik martxora arte.

Webgunea moldatu eta ikasleek notak kontsultatu ditzaten aplikazio bat garatu dute

ERREDAKZIOA

Laudioko Lanbide Heziketa Udal Ikastetxeak adierazi du Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilpenaren aldeko "apustu indartsua" egin duela, "ikasle, guraso eta enpresei zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz". Horretarako, iragan kurtsoren hasieratik "teknologia berrien alorreko birmoldaketa oso bati" ekion zioten.

Alde batetik, ikastetxearen web orrialdea moldatu dute, "askoz dinamikoagoa bilakatzuz eta eduki gehiagorekin hornituz". Enplegurako formazioa, lan-poltsa, fototeka eta albiste bloga izan dira ireki dituzten atal berriak. Atal berri-

horien bidez, erabiltzaileak "Euskadiko lanbide-heziketaren, teknologiariburuzko albistearen, ikastetxeari buruzko informazioaren eta euskararen munduaren" inguruko informazioa jasotzeko ahal izango du.

Aplikazioa

Hortaz gain, ikasleek euren espediente eta kalifikazioak kontsultatzeko erreminta sortu dute; ordenagailu, smartphone edo tablet bidez kontsultatu daitekeena. Aplikazioa beta fasean dago; iragan kurtsoren ikasle-talde batzuekin probatu zuten datoren kurtsoren ikasle guztien eskura jartzeko.

Ikastetxearen hezkuntza eskaintza kontsultatzeko edo lan-poltsan izena emateko www.cmfp-llodio.com web gunea kontsultatu daiteke edo informacion@cmfp-llodio.com helbidera idatzi.

Honako sare sozialetan aktiboki daudela ere gaineratu dute: Twitter (@CMFP_LLodio), Facebook (Laudio Lhui Cmfpllodio), YouTube eta Blogger (<http://noticiascmfp.blogspot.com.es/>).

+info: Lanbide Heziketa Udal Ikastetxeko web-gunea.



Ikastaroak

Lanean zein langabezia dauden helduentzako formazio ikastaro eskaintza



ERREDAKZIOA

Urtero legez, aurten ere Laudioko LH Udal Ikastetxean pertsona helduentzako hainbat ikastaro antolatuta dira; bai langabezia dauden pertsonentzat, bai eta lanean daudenentzat ere.

Arabako Foru Aldundiak, Hobe-tuz-ek eta Lanbide bezalako erakundeek ikastaro hauek diruz finantzatzeko aukera izan dute mekanika, elektrizitate eta administrazioaren esparruetan, hain zuzen ere.

Ikasturte honetan hamairu ikastaro ezberdinetan parte hartu duten 146 lagunek bere prestakuntza hobetzeko aukera izan dute mekanika, elektrizitate eta administrazioaren esparruetan, hain zuzen ere.

Enplegurako Formazio sisteman kokatzen dira ikastaro hauek, hau da, egindako ikastaroek balioespina dute Hezkuntza Sistemaren eta titulazio ofizialak lortzeko aukera ematen dute: Profesionaltasun-ziurtagiria hain zuzen ere.

Profesionaltasun-ziurtagiri dokumentu ofizial bat da, enpleguari begira esanguratsua den lan-jardueraren bat garatzeko pertsona batek dituen lanbide-gaitasunak egiaztatzen dituena. Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan jasotako kualifikazioak egiaztatzen ditu. Lan-administrazioak ematen du, eta lan-merkatuan lanbide baterako behar den prestakuntza ezartzen du.


Eskolaz kanpoko jarduerak

Euskal Herriko historian zehar ibili dira ikasleak, hiru egunez



'Euskal Herriko Historia' izeneko ikasgaiko ikasleak gelatik ateraz ziren Done Jakue bidea ezagutzeko asmoz, apirilak 13, 14 eta 15ean. Helburua, Erdi Aroan dokumentatua zegoen bidea eta honen loturiko historia eta artea ezagutzeko, jorratzeko eta sakontzeko zen. Guztira, 53 kilometro, hiru etapatan, Gipuzkoako Zega-

ma udalerritik Gasteizeraino Aguraingo Santa Maria, Gazeoko elizaren orma-irudi gotikoak eta erromaniko estiloko Estibaliz santutegia ikusi zituzten, besteak beste. "Lehenengo mailako artea", irakasleek hitzetan, "baina dosifikatua". Ikasleek arteko "bizikidetasuna" ere goraiatu dute irakasleek.



Laudioko L.H. Udal Ikastetxearen hezkuntza-eskaintza

BATXILERGOA (euskaraz eta gaztelaniaz)

- Zientziak eta Teknologia.
- Giza eta Gizarte Zientziak.

ERDI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

- Administrazio-Kudeaketa.
- Instalazio Elektriko eta Automatikoak.
- Mantentze-lan Elektromekanikoa.
- Mekanizazioa.
- Soldadura eta Galdaragintza.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Zuzendaritzari Laguntza.
- Administrazioa eta Finantzak.
- Sistema Elektronikoa eta Automatizatuak.
- Telekomunikabide eta Informatika Sistemak.
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia.
- Mekatronika Industrialia.
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programatzea.

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA PROGRAMAK

- Soldadura.
- Metal Arozaintza.

2014/15 EKO (AURRE)MATRIKULA EGITEKO DATAK

- | | | |
|------------------------------------|---------------------------------|---|
| • Batxilergoko prematrikula: | maiatzaren 5etik 15era. | Matrikulak: ekainaren 23tik uztailaren 4ra. |
| • Lanbide Zikloetako prematrikula: | maiatzaren 27tik ekainaren 6ra. | Matrikulak: uztailaren 9tik 16ra. |
| • HLPPko prematrikula: | maiatzaren 27tik ekainaren 6ra. | Matrikulak: uztailan. |



Informazio gehiago:
www.cmfp-llodio.com




Virgen del Carmen, 17
01400 LAUDIO / LLODIO (Araba / Álava)
Tel.: 94 672 05 05 - Fax: 94 672 10 57
secretaria@cmfp-llodio.com
informacion@cmfp-llodio.com
www.cmfp-llodio.com



_zaraobe

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Ikasitakoa praktikara eramateko aukera izan dute ikasleek



Batxilergoko ikasleak ariketa praktikoak egiten. Argazkia: Zaraobe Institutua

ERREDAKZIOA

Badira ikasturte batzuk Zaraobe Institutuko Batxilergo teknologikoko ikasleek, praktikak egiten dituztela, klasean landutako gaietan sakontzeko. Lanbide heziketako ekipamenduak baliatzen dituztela horretarako, Aurtan, adibidez, 1.mailako ikasleek metrologia eta

mekanizazioari ariketa praktikoak egin dituzte. Liburuetan ikasitakoa errealitatean nola erabilibehar den probatu dute: kalibreak, mikrometroak eta kalak, adibidez.

Gainera, klase teorikoetako testu-liburuetan azaltzen diren makinak maneiatu dituzte, lanbide hezike-

tako irakasleek lagunduta. Bestalde, 2.mailako ikasleek saiakuntzak egitea eta pneumatika izan dituzte helburu. Adierazi dutenez, saiakuntzak egiteko orduan durometroak, Charpy pendulua eta Trakzio-makina ezagutu eta erabiltzeko parada izan dute.


Pneumatikan, aldiz, asteak igaro dituzte zirkuituak marrazten, eta diseinatutakoa muntatzeko eta martxan jartzeko aukera izan zuten Automatismo Tailerlean.

Balorazio "ezin hobea"

Hau dena Batxilergo Teknologiko eta Lanbide Heziketaren arteko elkarlana dela eta izan da posible, Institututik adierazi dutenez. "Hezkuntza eskaintza zabalak eta punta-puntako ekipamendua, horrelako aukerak ematen dizkigu".

Ikasleen balorazioa ere "ezin hobea" izan dela gaineratu dute Institututik. "Gelan ikusitakoa praktikara eramatea beti delako bide ona ikasketa prozesua indartzeko".

Iaz selektibitateari aurkeztu ziren ikasleen %100ak gainditu zuen



Ia ikasle gehienek gainditzen dute selektibitatea. Argazkia: Zaraobe Institutua.

ERREDAKZIOA

"Ikastetxe batzuk akaso bertan dauden ikasleek gaindituko dutela ziurtatzen dute, eta ikasleek nahi duten karrera egin ahal izateko nota ziurtatua dutela", adierazi dute Zaraobe Institututik, "Halakorik ez dugu Zaraoben aipatzen. Ez zaigu bidezkoa iruditzen".

Institututik adierazi dute beraiek ziurtatzen duten gauza bakarra "profesionaltasuna" dela, "serio-tasuna, prozesuetan oinarritutako kalitatezko kudeaketa sistema. Ikasleekin norbanako arreta eta opari faltsurik gabeko kalitatezko

prestakuntza". Gauzak "ondo egitea" dute helburu Institutuan. Horren emaitzatzat dituzte Zaraobe-ko ikasleek selektibitatean lortzen dituzten notak, goiko grafikoan islatuak daudenak. Datu horien arabera, iazko selektibitate proban aurkeztu ziren ikasleen % 100ak gainditu zuen. Emaitzarik txarrenak 2009-2010 kurtsoko frogan lortu zuten, baina orduan ere gehiengo batek gainditzea lortu zuen: %94. EAEko ikasleen %97-ak gainditzen du selektibitatea, EHUren datuen arabera.

Lanbide Heziketa euskaraz, erronka



ERREDAKZIOA

Euskararen erabilera normalizatu nahian urte batzuk daramatzate Zaraobe Institutuan. Administrazio eta Finantzak goi mailako zikloarekin hasi ziren lehenbizi. Baina ziklo hura "matrikulazio eskasa zela eta" desagertu zela azaldu dute Institututik. Egun, ziklo guztietan A edo D ereduaren matrikulatzeko aukera eskaintzen dute. Hala ere, momentuz, eta matrikula kopuruaren arabera, talde mistoak sortu dituzte. "Modulu batzuetan denok elkarrekin gaztelaniaz, eta besteetan bikoizketa egiten dugu (ikastaldea banatu alegia)". Hala ere, erronka horren emaitza "euskaldunon esku" dagoela azpimarratu dute; "ikasleek euskaraz jarraitu ala ez... hori da erabakia".

Goi-mailako edo erdi-mailako zikloa euskaraz ikasiz gero B1 edo B2 ziurtagiria lortzen du ikasleak, hurrenez hurren.

Europar proiektuak

"Europa eta Asiako proiektuekin lanean ari gara"



Iñigo Lopez Zaraobe ikastetxeko irakaslea

ERREDAKZIOA

IÑIGO LOPEZ DE SANTIAGO proiektu europarren arduraduna da Zaraobe ikastetxean. Gaur egun, programa hauek hainbat aukera eskaintzen dituzte: mugikortasunak, bideo konferentzia bitarteko jarduerak, proiektu komunenak eta abar.

Noiz hasi zineten nazioarteko proiektuak lantzen? Nola hasi zineten?

2000. urtean Ikaslanekin kolaborazioa egiten eta ikasleak praktiketara bidaliz hasi ginen. Gero 2008. urtean gure proiektuak hedatu genituen Vidrala enpresarekin kolaboratuz beraien Korsikako enpresara ikasleak praktiketara bidaltzen. Gaur egun, ikastetxeak ditugu bazkide nagusiak.

Zein herrialdeekin dituzue harremanak? Zer espezialitate lantzen dituzte bertan?

Irlanda, Austria, Italia, Danimarka eta Frantziarekin ditugu harremanak. Enpresa zein ikastetxeekin lan egiten dugu. Zuzeneko harremana dugu eta hainbat proiektu garatzeko aukerak.

Irlandan adibidez soziosanitarioko ikasleak, eta Frantzian mekatronika eta mekanizazioak aritzen dira. Beste lekuetan guztiak.

Etorri da kanpoko ikaslerik hona?

Aurtan, Frantziako ikasleak izan ditugu hemen bai ikastetxean baita enpresa batean ere. Etorkizunean, Danimarka eta Italiakoak ere etorriko dira.

Txinarekin ere zer edo zer lan duzue, ezta?

Momentuz esperimentu bat izaten ari da, internet bidez ikasleak lanak eta esperientziak trukatzeko ari dira. Gure web orrialdean topatu dezakezue orain arte egindakoa. Etorkizunean hobeto garatzeko eta jorrazteko proiektu bat izan nahi du, nire us-tez oso interesgarria.

+info: Europar proiektuen berri zehatzagoa Zaraoberen web-gunean



Mekatronika ingelesez ikasteko aukera eskaintzen du Institutuak

ERREDAKZIOA

Amurrioko Zaraobe Institutuak aukera ematen du Lanbide Heziketako modulu bat ingelesez ikasteko. Goi mailako Mekatronika heziketa zikloak 1 eta 2. mailan bina modulu ingeles hizkuntzan emateko aukera eskaintzen du.

Bukatzeaz dagoen ikasturte honetako esperientzia "oso ona" izan dela adierazi dute Institututik, eta hori probatzeko "ikasleekin hitz egin" besterik ez dagoela ziurtatu dute.

Horregatik, modulu ingeles hiz-


kuntzan ematera animatu dituzte ikasleak. "Ez da hizkuntzagatik beldurrik izan behar; soilik ingelesean gutxiengo maila, hori bai", adierazi dute.

Baldintzak

Hiru baldintza hauetako bat gaitu behar da moduluan ingelesez emateko: B2 ziurtagiria izatea ingeles hizkuntzan, Batxilergoan Ingelsa ikasgaiaren "oso ongi" kalifikazioa izatea edo moduluan sartzeko sarbide froga egitea.



LANBIDE HEZIEKTA

MANTENTZE LAN
ELEKTROMEKANIKOAERDI MAILAKO ZIKLOA
(A eta D ereduak)MEKATRONIKA
INDUSTRIALAGOI MAILAKO ZIKLOA
(A, D eta ING ereduak)

MEKANIZAZIOA

ERDI MAILAKO ZIKLOA
(A eta D ereduak)MENDEKOTASUN
EGOERAN DAUDEN
PERTSONENTZAKO
ARRETAERDI MAILAKO ZIKLOA
(A eta D ereduak)

BATXILERGOA

ZIENTZIA ETA
TEKNOLOGIA

(D ereduak)

GIZA ETA GIZARTE
ZIENTZIAK

(D ereduak)

LEIHOA EUROPARA ZABALIK

- Erasmus+ programan parte hartzen dugu, bitartekaririk gabe: Bulgaria, Austria, Danimarka, Frantzia,...
- Hitzarmenak hainbat ikastetxeekin: Lycée Professionel Gustave Eiffel, Social-og Sundhedsskolen..
- Ingelera indartzeko aparteko ikastaroa ikasleen zerbitzura
- Bideokonferentzia gela berria

Hiruheludun programa: MEKATRONIKA INDUSTRIALEKO GOI MAILAKO ZIKLOAN TALDE ELEANITZA DUGU

METODOLOGIA AKTIBOAK
Ikaslea protagonista; ikerketa, talde lana, aurkezpenak..



Metodologia aktiboen aldeko apostua:
Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza.

KOMPETENTZIA OROKORRAK LANTZEN
PEDAGOGIA BERRITZAILEEN BIDEZ
Ikasi:

- ikasiz
- elkarbiziz
- pertsona izanez
- komunikatuz
- emozioak kudeatuz

IDENTITATEA

TALDEA

KOMUNIKAZIOA

EMOZIOAK

ADIMENA

EKIPAMENDURIK ONENAK

Etxebarriaur Kalea, 6, 01470 Amurrio, Araba
945 39 30 00 // zaraobe@zaraobe.net
www.zaraobe.net

Audio ikastola

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Jarraipen "zuzen eta hurbila" eskaintzen dute ikastolan



Batxilergoko ikasleak klasean. Argazkia: Audio Ikastola.

ERREDAKZIOA

Laudio Ikastola, Ikastolen Elkar-teko partaide da eta, "eskualdeko euskalduntze historian ibilbide luzea izateaz gain", gaur egun euskalgintza esparruko "aktore garrantzitsua da", ikastolako kideen hitzetan. "Guraso kooperatiba bat da, zeinean 0-18 urteko hezkuntza eskaintzen den", azaldu dute.

Batxilergoko modalitateak bi aukera eskaintzen ditu: Zientifiko Teknologikoa eta Giza eta Gizarte Zientziakoa.

Jarraipen "zuzen eta hurbila"

Laudio Ikastolako kideek azaldu dute berebiziko garrantzia ematen diotela Tutoretzari. "Gure proiektuaren bereizgarri nabaria bilakatu da", adierazi dute: "Ikasleekin Tuto-

retza lan sakona egiten da eta helburu nagusia ikasle guztiek maila gainditzea eta titulua eskuratzea da". Tutoretzan gainera, tutore eta orientatzailearen laguntzarekin, ikasleen etorkizuneko ikasketak eta lanbide posibleak sakonki aztertzen dira, ikastolako kideek azaldu dutenez. Audio Ikastolak bere ordutegian tutoretza ordu bat hamabostero finkatu du. Gainera gurasoek asteazken arratsaldeetan tutorearekin biltzeko ordua izango dute.

Irakasleak

Irakasleriari dagokionez "egonkorra" dela azpimarratu dute ikastolatik. "Honek esperientzia handiko irakasleak izatea bermatzen du

eta urtero-urtero arlo berdinak irakasten dituzte bestelako abantailak eskainiz: mintegien egonkortasuna bermatzen du, arloak ezagutzen dituzte, helburuak...".

Irakasle eta ikasleen arteko harreman onari esker "bizikidetzagiro egokia" sortzen dela azaldu dute ikastolakoek, eta gaineratu dute gerta daitezkeen arazoan aurrean neurri zuzentzaile alternatiboak lehenesten direla.

Ikastolak eskaintako datuen arabera, Batxilergoko ikasleen %95 baino gehiagok titulua eskuratzen du Audio Ikastolan. Selektibitateko lehen deialdira aurkeztzen den ikasleen portzentajea oso altua da, %90etik gora, EAEko eta Ikastolaretako batz bestekotik gorakoa. Azken urteetan aurkeztu direnen %100ak selektibitatea gainditu du.

IKT-Teknologia berriak

Azken urteetan "IKTak geletan ezartzeko esfortzu handia" egin dutela azaldu dute ikastolakoek. Batxilergoko ikasleek, ikas arloak lantzeko, Moodle e-learning plataforma erabiltzen dute eta, horretarako, ikasleek ordenagailu eramangarriak dituzte.

Eskolaz kanpoko hainbat jardura eskaintzen dira eta horien artean ikas ibilbidea osatzeko lagungarriak izan daitezkeen EGA eskuratzeko ikastaroa edo Aisialdi monitoria izateko ikastaroa topatu daitezke.

Etorkizun akademiko eta profesionalari begirako orientazioa



Batxilergoko ikasleak ariketa praktikoak egiten. Argazkia: Zeraobe Institutua

ERREDAKZIOA

Laudio Ikastolako kideek azaldu dute Orientazio mintegi "indartsu eta eraginkorra" dutela, "ikasleen etorkizun akademiko zein laborala pertsonaz pertsona lantzeko baliabideak eskaintzen dituen". Hel-

buru horiek lortzeko asmoz tutoretza lana bultzatzen dute, hala nola, beharrezko sarbide nota ezagutu edo egin beharreko arloak aukeratzeko. Urtero orientazio akademiko eta profesionalerako azoka anto-

latzen dute non Unibertsitate eta formazio zentro desberdinek Ikastolan bertan euren eskaintza aurkeztu eta azaltzen duten. Era berean, erkidegoko Campus desberdinetara bisitak antolatzen dituzte.

Orientazio taldeak zailtasunak dituzten ikasleen jarraipena egiten du. Hortaz, DBHn PT edo laguntza izan duten ikasleek Batxilergoan ere jarraipena izaten dute. Aukera egiterakoan batxilergoaren ondorengo irteerak eta ikaslearen benetako gaitasunak kontuan hartu behar dira.

Hasieratik norberaren ibilbidearen diseinu osoa egitea komeni da. Ez da komeni, berriz, irteerak goizegi murriztea. Honez gain, ikasgai batzuk beharrezkoak izan daitezke selektibitatearen proba espezi-fikoari begira.

Laudio Txiki

"Haurraren erritmo eta beharretara egokitzen gara"



Laudio Txikiko irakasleak. Argazkia: Audio Ikastola.

ERREDAKZIOA

Laudio Ikastolak 0 eta 1 urteko haurren matrikula epea zabal-tzen du maiatza hasieran. Duela hamar urte ekin zion Ikastolak adin hauetako haurrak eskolaratzeari. Ikasturte honetan hainbat berrikuntza pedagogiko abiatu dituzte Haur Hezkuntzako 1. zikloari begira. Audio Txikiko irakasleengana jo dugu egin duten hausnarketaren berri izateko.

Nola heldu diozue berrikuntza pedagogikoari?

Egiten duguna baloratu eta esperientzia berriak ezagutzeko prozesua zabaldu genuen duela hiru urte. Lan horretatik abiatuta, adibidez, Emy Pikler eta Budapesteko Lóczy Eskolako egiteko eran oinarritzen den prestakuntza jasotzen ari gara.

Zertan oinarritzen da egiteko era berri hori?

Piklerren hazkuntza proposamena hiru zutabetan oinarritzen da. Haurraren mugimendu askea bultzatzen du lehenik. Hau da, haur bat gai da ibiltzen hasi bitarteko bere motrizitate guztia bera bakarrik eraikitze-ko eta ibilbidean topatzen dituen trabak gainditzeko tresnak aurkitzeko kapaza da. Era honetan haur seguruak eta bere buruarengan konfiantza dutenak lortuko ditugu.

Bigarren zutabea zaintza da. Haurrak dira eta askatasun une horiekin batera beharrezkoa dute harreman pertsonalitatea, kalitatezko zaintza esangogenuke. Jateko uneak, garbitze-koak, lo egitekoak... haurraren eta helduaren arteko une estuak dira. Mimoak, kontuz, gozo egin behar dira haurraren eta helduaren arteko lotura une horietan estutzen baita. Sozializazioa azken zutabea litzateke. Haurra talde bateko partaide izateko urratsa zabalitzen dugu, baina horrek bere denbora behar du. Haurraren erritmo eta beharretara egokitzen gara eta prozesu hau modu baketsuan ematea da gure helburua.

Nola islatu duzue eguneroko jardunean planteamendu berria?

Hezitzaile bezala haurrarenkin dugun hartu-emana berrikusi dugu. Behaketa lana indartu dugu haurra eta bere jolasa ulertzeko eta sortzen diren behar-rrak asetzeko. Guzti hau erabiltzen ditugun materialetan ikusten da argi.

Jostailu-dendako tresna tradizionaletatik aldendu eta bide naturalagoa jorratu dugu. Egunerokoan inguruan dituzten materialak hurbiltzen dizkiegu, beraien irudimenerako pizgarriak eskaintzen saiatzen gara.





LAUDIO *ikastola*



**izan zirelako gara,
garelako izango dira**

www.laudioikastola.net
94 672 67 37



MATRIKULATU
ZAITEZ
EUSKARAZ
ZURE ESKU ERE
BADAGO

IKASI, LAN ETA BIZI

EUSKARAZ

aiaraldea 
komunikazioleihoa